



PRENTSA OHARRA
Iruñea, 2013ko irailaren 20a

Lurraldeen arteko lankidetzaren ospatzea — *Mugak konpartituz, elkarrekin haziz!*

Lurraldeen arteko lankidetzaren eguna ospatzeko, Pirinioetako Lan Elkartek, POCTEFA programaren kudeaketa agintari gisa, bat egin du Circuldouce egitasmoko bazkideek antolaturiko ekitaldiarekin. Ekitaldi horretan bizikleta martxak antolatu dira Behobiatik Endarlatsara / Behobiatik Bertizera, Circuldouce egitasmoaren barruan, **FEDER** funtsekin POCTEFaren bitartez, **besteak beste, finantzatutako bide berde berriztatutik.**

Egitarauaz gozatu ahal izateko, hitzordua irailaren 29an da. Aukera bat baino gehiago dago: helduei zuzendutako bat, 42 kilometrokoa, eta familia osoari zuzendutako bi, 15 eta 7 kilometrokoak. Bi lehenengo ibilbidetan parte hartzeko izen eman behar da (irailaren 26ra arte). Helduei eta haurrei zuzendutako animazioak, haurrentzako tailerrak eta lurraldeko produktuen dastatzeak osatuko dute Endarlatsan, ibilbirerik laburrenako helmugan (7 kilometrokoa).

Europako Lankidetzaren Egunaren bitartez, hiritarrek, Europar Batasunak mugaz gaindiko lankidetzaren sustatzeko eta laguntzeko burutzen duen lanaz jabetuko dira, eta lan horrek lurraldeari eta biztanle guztiei ekartzen dizkien onurak ikusi ahal izango dituzte.

Hiru ibilbideak:

Zehazki, Euroziklo-EuroVeló 1 Bizikleta Martxaren hiru ibilbide diseinatu dira:

- Familientzako ibilbidea, 7 km: Irun (Behobia) – Endarlatsa (libre)

7 km-ko ibilbide labur bat egongo da, haurrentzat eta hasi berrientzat. Kasu horretan, Irun (Behobia) eta Endarlatsa lotuko ditu. Irungo Nazioarteko Zubitik (Behobia) –bertan hasiko da helduentzako 42 km-ko ibilbidea- irtengo da martxa labur hau. Bizikletarik ez dutenentzat ere jarriko dituzte halakoak antolatzaileek (elektrikoak eta haurrentzako bizikletak, horietako batzuk), dituztenak amaitu arte, parte hartzea erabakitzen dutenentzat. Endarlatsara iritsitakoan, bizikletak itzuli ahal izango dituzte, edo Irunera bueltatzea erabakitzen badute, Nazioarteko Zubian ere egin ahal izango dute.

Endarlatsan bilduko da Euroziklo Bizikleta Martxako



animazioa. Euroziklo proiektuari buruzko informazio-karpa bat jarriko da bertan, sustapen-materialarekin, eta Europako Lankidetzaren Eguna 2013 ere ospatuko da. Itzulera hasi baino lehen haurrentzako eta helduentzako animazioekin aprobetxatzera gonbinatuta zaudete, eskualdeko produktuen dastatzearekin, mugarekin, lankidetzarekin eta hizkuntzekin lotutako txikientzako jolasekin.

- Helduentzako ibilbidea, 42 km: Irun (Behobia) – Bertizko Parke Naturala (izen-ematea)

Ibilbide luzeena, 42 km ingurukoa, Irun (Behobia) eta Bertiz artekoa izango da. 10:00etan hasiko da akreditazioen banaketa, Irungo Nazioarteko Zubian (Behobia), eta 10:30ean ekingo zaio Martxari. Bertizetik joan nahi duten parte-hartzaileek autobus zerbitzua edukiko dute; 9:30ean irtengo da Bertizeko aparkalekutik Irunera (Behobia). 13:00etarako aurreikusita dago Bertizko Parke Naturalera iristea, eta han hamaiketako eta opariak eskainiko zaizkie parte-hartzaileei. Irteera lekutik helmugara, Lesaka, Igantzi, Sunbilla, Doneztebe, Legasa, Narbate eta Oieregi zeharkatuko dira.

Ibilbidean parte hartzeko, derrigorrezkoa da gutxienez 18 urte edukitzea eta irailaren 26a baino lehen izen-ematea egin izatea, ondorengo web orri honetan: <http://www.deporbox.com/eventov2/6marchabttbidaso/portada>

- Familientzako ibilbidea, 15 km: Sunbilla – Bertizko Parke Naturala (izen-ematea)

Sunbilla eta Bertiz arteko 15 km-ko ibilbidea egiteko aukera dago; horretarako, izena eman behar da, irailaren 26a baino lehen, ondorengo esteka honetan: <http://www.deporbox.com/eventov2/6marchabttbidasoasumbillabertiz/portada> Parte-hartzaileak 12:00etan irtengo dira Sunbillako garbilekutik, eta 13:00 inguruan helduko dira Bertizko Parke Naturalera. Horiek ere edukiko dute autobus zerbitzua; 11:30ean irtengo da Bertizko aparkalekutik, eta 12:00etan utziko ditu Sunbillan, ibilbidea egiteko.

Europako Lankidetzaren Eguna

Europako Lankidetzaren Egunak, Europar Batasuneko zein inguruetakoa 35 herrialde baino gehiagoren lurralde elkarlanerako 70 programa baino gehiago biltzen ditu. **90eko hamarkadaren hasieratik, Europar Batasunak finantzatzen lagun dituen 30.000 egitasmo baino gehiagori esker, Europako hiritarren bizimodua hobetu ahal izan da, mugetatik haraindi, lanpostuak sortuz, ingurumena babestuz, eta osasun zerbitzuak, garraioa eta energia hobetuz.**

Hori guztia oso egitasmo jakinean parte hartuz, era ludikoan, kirolean eta familian oinarrituta. «I am part of it» kanpaina europarraren goiburuari jarraituz, biztanleei proposamena egiten zaie, jaiaren parte izan daitezen, Europaren eraikuntzaren eta mugen desagerpenaren parte gisa. Kanpaina INTERACTek koordinatzen du, Europar Batasunarekin elkarlanean, eta Lurraldeen



Batzordearen eta Europako Legebiltzarraren laguntza du. Informazio gehiago jasotzeko eta toki bakoitzeko ekitaldien eta lankidetzaren egitasmoen adibideen zerrenda jasotzeko, bisitatu www.ecday.eu web gunea.

Circuldouce: creación de una ruta transfronteriza de circulación reducida.

Euroziklo-EuroVeló 1 Bizikleta Martxa Circuldouce egitasmoa bazkideek antolatzen dute. Circuldouce, Baiona eta Iruñea artean zirkulazio urriko ardatza sortzean eta garatzean datza. Bi hiriak, Norvegiar dagoen Iparraldeko Lurmuturra eta Portugal hegoaldean dagoen Sagres lotzen dituen EuroVelo 1 zikloko ibilbidean daude.

Jardunbide berriak sustatu nahi dira, turismo jasagarria lortzeko, Getaria (Pirinio Atlantikoak) eta Bertiz (Nafarroa) artean 60 kilometroko lehenbiziko zatia egokituz. Horrez gain, ibilbidea egiten duten oinezkoak eta txirrindulariei harrera eta informazioa eskaintzeko xedez, 1 zikloko ibilbideko harrera gunea sortu da, Irungo aduanaren eraikin zaharretan. Egitasmoak ingurumenaren aldetik duen interesaz gain, egitasmoak inguru osoan duen eragin ekonomikoa ere azpimarratu behar da, sektoreko profesionalak zuzeneko onurak ekarriko dizkien turismo berria garatzeko aukera eskaintzen baitu. Turismo produktu berri horrek, inguru horretako aberastasunak beste era batera, ingurumena gehiago errespetatuz, aurkitzeko gogoia duten bezero berriak erakartzen ditu.

Informazio gehiago: www.euroziklo.com





UE - FEDER

POCTEFA, mugaz gaindiko lurraldearen zerbitzura dagoen programa europarra

Europar Batzordeak eta Estatuak, Aragoiko, Kataluniako, Nafarroako eta Euskadiko autonomia erkidegoek, Aquitaine, Midi-Pyrénées eta Languedoc-Roussillon lurraldeek eta Andorrek osatzen duten Pirinioetako Lan Elkarrearen Partzuergoa izendatu dute Espainia, Frantzia eta Andorra arteko mugara bideraturiko programa europarra kudeatzeko (Espainia, Frantzia eta Andorra arteko Lurralde Elkarlanerako Programa Operatiboa 2007-2013 epealdirako). Esparru horren barruan, CTPa lehen mailako agentea da Europa mailan mugaz gaindiko elkarlanaren alorrean, eta programa europar bat kudeatzen duen Europako mugaz gaindiko lehen erakundea dela gogoratu behar da.

Programa hori, Espainia, Frantzia eta Andorra arteko mugaz gaindiko lurraldearen integrazio ekonomikoa eta soziala finkatzera bideraturiko erkidegoko finantza laguntzaren laugarren belaunaldia da. FEDER aurrekontua 168 milioi eurokoa da. Bere laguntza, mugaz gaindiko ekonomia, gizarte eta ingurumen jardueren garapenean kontzentratzen du, lurralde mailako garapen jasangarriaren aldeko estrategia bateratuen bitartez. Horrez gain, programa horrek laguntza emango du, hiritarrek, mugaz gaindiko gunea espazio bakar gisa hauteman dezaten eta, horrela, muga izaera hori murriztu dadin.

2007tik, 133 proiektu onetsi dira POCTEFA programaren barruan, mugaz gaindiko lurralde osoan. Proiektu horiek, lurraldeen garapenerako ekintzak jartzen dituzte martxan, jarduera ekonomikoaren, berrikuntzaren eta giza kapitalaren alorrean edo lurraldeei, ondare naturalari eta kulturari balioa ematearekin erlazionaturiko gaietan. Beste batzuen helburua herrien bizitza kalitatea hobetzea da, lurralde egituraketa estrategia komunaren bitartez. Eta guztiak ere, beti, garapen jasangarriaren aldeko ardura dute, ingurumen baliabideak babesteko eta hobeto kudeatzeko helburuz.

Informazio gehiago Sonia Aizpuru, CTP / POCTEFAko komunikazio arduraduna
s.laizpuru@poctefa.eu
+34 618 37 64 01

Invirtiendo en nuestro futuro

Investir dans notre avenir

COOPERACIÓN COOPERATION
TERRITORIAL TERRITORIALE
2007-2013

